



IKASLE OFIZIALENTZAKO INFORMAZIOA

1. HUTSEGITEAK

Ikasle ofizialen eskubidea eta betebeharra da eskoletara puntualtasunez joatea, ikasleen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen 201/2008 Dekretuaren arabera.

Gehenez ere, ikasturte akademiko osoko eskola-orduen % 23ko justifikatu gabeko hutsegiteak onartuko dira.

- Onartutako hutsegiteen erdia (15 ordu) egin duten ikasleen zerrendak argitaratuko dira, aldizka, HEOko iragarki-tauletan.
- Aipatutako % 23 horretara iristen direnean (30 ordu), ikasleei idatzizko jakinarazpena helaraziko zaie.

Ikasle ofizialak justifikatu gabeko gehenezko hutsegiteak egindakoan, eskolara joaten jarraitzeko eskubidea galduko du (ez, ordea, matrikulatutako taldearekin batera azterketa egiteko eskubidea); era berean, lehentasuna galduko du hizkuntza horretako hurrengo matrikula ofizialean.

- Adin nagusiko pertsonen kasuan, hutsegiteen justifikazioa ikasleak berak egin beharko du, edozein lan-harremanetan eskatzen diren antzeko agiriak aurkeztuta.
- Adin txikikoen eskola-hutsegiteak gurasoek edo tutoreek justifikatu beharko dituzte, betiere EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen 201/2008 Dekretuari jarraiki.

Ikasle ofizialek, ezinbestean, horren guztiaren jakinaren ganean egon behar dute eta irakaslearengana jo behar dute hutsegiteak justifikatzeko agiriak aurkezteko.

Justifikatutako hutsegite gisa hartuko dira:

- Behar bezala justifikatutako arrazoi medikoak edo lan arlokoak. Aurkeztutako ziurtagirian argi eta garbi adierazi beharko dira hutsegitea eragin duen arrazoiaren datak.
- Graduondoko espezializazio-praktikak (bekak edo enpresa edo erakunde bateko kontratua, unibertsitateko lan-praktikak).
- Ezkontzagatiko lan-baimena.
- Amatasun-baja.
- Erasmus programak.
- Ikasketa-prestakuntzako bekak.



2. MATRIKULA OFIZIALARI UKO EGITEA

Edozein ikaslek matrikulari uko egin diezaioke. Horretarako, dagokion eskaera aurkeztu beharko du ikastetxeko Administrazioan, abian den urtearen abenduko azken eguna baino lehen.

Justifikaturiko arrazoi baten eraginez egiten badu, ikasleak ez du hurrengo ikasturterako ofizialtasunik galduko.

Justifikaturiko arrazoirik gabe egiten badu eta hurrengo ikasturtean berriz matrikulatu nahi badu, onespren-prozesuan parte hartu beharko du berriz ere.

Data horretatik kasuan kasuko ikasturtearen apirileko azken egunera arte, honako kasu hauetan bakarrik onartuko da matrikulari uko egitea:

- Gaixotasun larria
- Istripu larriak
- Ustekabeko beste edozein gorabehera larri
- Bizileku-aldaketa
- Lantoki-aldaketa
- Ikasleak beste ikasketa ofizial batzuk egiten dituen lekua aldatzea.

Matrikulari uko egiteko eskaeraz gain, ikasleak uko egiteko arrazoiak egiaztatzen dituen agiriak aurkeztu beharko ditu.

Arestian aipatu ez diren ezohiko beste arrazoi batzuk daudenean, matrikulari uko egiteko eskaerak epe berean aurkeztu beharko dira eta dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Azken hiruhilekoan edo baimendutako hutsegite kopurua egindakoa, ez da uko egiteko eskaerarik onartuko.

Matrikularen zenbatekoa ez da inola ere itzuliko.

Dagokion ikasturteko maiatzeko lehen eskola-egunetik aurrera, behar bezala justifikatutako istripu edo gaixotasun larriagatik bakarrik onartuko da uko egitea, baldin eta horren ondorioz ikaslea ezin bada azken ebaluazio-azterketetara joan eta eskatzaileak aipatutako azterketaren bat egin ez badu.

3. MAILA BAKOITZEAN EGIN DAITEKEEN URTE KOPURUA

Erregimen bereziko hizkuntza-ikasketak ebaluatu eta egiaztatzea arautzen duen 2012ko maiatzaren 15eko Aginduaren arabera, aurrez aurreko modalitateko ikasleak ezingo dira bi aldiz baino gehiagotan matrikulatu ikasturte berean.



Salbuespen gisa, ikasleak hala eskatuta eta dagokion irakasleak proposatuta, eskolako zuzendariak hirugarren aldiz matrikulatzea onar dezake (salbuespeneko matrikula eskatu ostean), honako denbora-muga hauekin:

- 4 urte Oinarrizko Mailan
- 6 urte Maila Ertainen eta Aurreratuen kasuan
- 3 urte Gaitasun Mailan (C1)

4. ZIURTAGIRIRIK GABEKO MAILEN (A1, B1.1) EBALUAZIOA

Erregimen bereziko hizkuntza-ikasketak ebaluatu eta egiaztatzea arautzen duen 2012ko maiatzaren 15eko Aginduaren arabera, ziurtagiririk gabeko mailetako (A1 eta B1.1) ikasleei ebaluazio jarraitua aplikatuko zaie.

5. ORDUTEGI ALDAKETAK

Ikastetxeak ez du bermatzen matrikula-prozesuan egokitutako ordutegia aldatzeko aukera. Dena den, ikasle batek ezinbestean ordutegiz aldatu beharko balu, eginahalak egingo dira horretarako, betiere eskatutako ordutegi berrian lekua badago.

Horretarako, dagokion inprimakia jaso eta entregatu beharko du Idazkaritzan.

6. MAILA ALDAKETA

Ikasturtea hasi ondoren, autoebaluazio okerra egiteagatik dagokion mailan ez dagoen ikasleak mailaz igotzea edo jaistea eska dezake azaroaren lehen eskola-egunetik abenduaren azken egunera. Aldaketa hori eskatutako mailaren ordutegian lekua badago bakarrik onartuko da. Mailaz aldatzeko ezinbesteko baldintza izango da irakaslearen eta kasuan kasuko departamentuaren idatzizko baimena izatea. Baimen hori ikasleak Idazkaritzan aurkeztuko duen eskabideari erantsiko zaio.

7. IRAKASLEEN HUTSEGITEAK

Ahal den neurrian, eta denbora baldin badago, irakasleen hutsegiteak telefono mugikorreko mezu bidez jakinaraziko zaizkie ikasleei.

Horrenbestez, matrikula egitean telefono mugikorreko zenbakia adieraztea gomendatzen da.



8. ADMINISTRAZIO KUDEAKETAK

HEOn egin beharreko kudeaketa guztietarako, azterketa barne, NANA aurkeztu beharko da publikoaren arretarako ordutegian.

Edozein izapide egiteko beharrezko inprimakiak ikastetxean bertan eskuratu daitezke.

9. LIBURUEN MAILEGUA

Maileguen zerbitzua departamentu guztietan eskainiko da, kasu bakoitzean adierazitako ordutegian.

Informazio gehiago nahi izanez gero, eskatu beharrezko baldintzak dagokion hizkuntza-departamentuan.